

## GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakariak dolumin eta elkartasuneko mezua bidali dio Galiziako lehendakariari

*Dekretu batek bihar hiru eguneko dolu ofiziala deklaratuko du Santiagon gertatutako tren-istripuko biktimak gogoratzeko*

Jueves, 25 de julio de 2013

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Galiziako Xuntako lehendakari Alberto Núñez Feijóori mezu bat igorri dio, eta bertan Nafarroako gizarte guztiaren izenean Santiagon gertatutako tren-istripuko biktimen senideei dolumin eta elkartasuna adierazi nahi izan die.

Gutunean, Yolanda Barcinak "tren-ezbehar ikaragarriak izandako ondorioen aurrean hunkituta" sentitu dela esan du eta Xuntako lehendakariari helarazi dio, "bihotz-bihotzez, Nafarroako erakunde nahiz herritar guztien izenean, gure dolumin eta elkartasun erabatekoa hildakoen senideekin eta zauritutako pertsona guztiekin".

Gainera, Nafarroatik eman daitekeen laguntza guztia eskaini du "halako zoritzarreko gertakari baten ondorioak arintze aldera", eta gaineratu du "Galiziaren egun honetan, Nafarroak galiziar eta espainiar guztiekin bat egiten duela sentitzen duten oinazean eta biktimekiko oroitzapenean".

Bestalde, Lehendakariak bihar Dekretu bat onartuko du eta, haren bidez, dolu-egunak deklaratuko dira uztailak 26, ostirala, uztailak 27 eta uztailak 28, igandea; egun horietan banderak haga erdian jarriko dira Foru Komunitateko eraikin ofizialetan.